

## GOBERNU BATZARRA

2017 06 19

|                               |  |
|-------------------------------|--|
| Alkatea:                      | Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hemeretziaren, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko. |
| Olatz Peon Ormazabal          |  |
| Zinegotziak:                  |  |
| Patxi Amantegi Zubiria        |  |
| Nerea Letamendia Belloso      |  |
| Jokin Azkue Arrastoa          | 1.- Aurreko akta onartzea.   |
| Iñigo Alonso Sarasibar        | 2.-lurreamendi Egoitzak aurkeztutako 7/2017 zka. duen faktura zerrenda.  |
| Beh. Beh. Idazkaria:          |  |
| Karmele Contreras Goikoetxea  | 3.- Kondeaneko Aldapa 11-N babes ofizialeko 11 etxebizitza gauzatzeko obren 8. ziurtagiria (04/17 faktura).  |
| Kontuhartzaitzako Teknikaria: |  |
| Paulino Alonso Eraso          | 4.-32/2017 zenbakia duen faktura-zerrenda.   |

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko ekainaren 12an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### 2.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako 7/2017 zka. duen faktura zerrenda.

lurreamendi egoitzak 7/2017 faktura-zerrenda aurkeztu du, **287.697,10** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako 7/2017 faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

**3.-Kondeaneko Aldapa 11-N babes ofizialeko 11 etxebizitzagauzatzeko obren 8. ziurtagiria (04/17 faktura).**

Tolosako Udalak Kondeaneko Aldapa UTE-ri esleitu zion “Kondeaneko Aldapako 11- 15.3 azpiesparruan Babes Ofizialeko 11 etxebizitza” egiteko obren kontratua, eta 732.842,40€ izan zen esleipenaren zenbatekoa.

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia..... Zenbatekoa

|                     |             |             |
|---------------------|-------------|-------------|
| 1. ziurtagiria..... | 01/16.....  | 100.842,98€ |
| 2. ziurtagiria..... | 02/16.....  | 76.294,90€  |
| 3. ziurtagiria..... | 03/16 ..... | 92.610,55€  |
| 4. ziurtagiria..... | 04/16.....  | 76.564,24€  |
| 5. ziurtagiria..... | 05/16.....  | 132.892,17€ |
| 6. ziurtagiria..... | 01/17.....  | 54.992,82€  |
| 7. ziurtagiria..... | 02/17.....  | 85.413,71€  |

GUZTIRA.....619.611,37€

Orain 8. ziurtagiria eta likidazioa aurkezten dira.

8. ziurtagiria (faktura zenbakia 04/17) eta kopurua 132.992,21€-koa da.

Ziurtagiria ikusita, eta Udal arkitektoak egindako txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Onartzea “Kondeaneko Aldapako 11-15.n Babes Ofizialeko 11 etxebizitza” egiteko obren 8. ziurtagiria, 132.992,21€koa.

**BIGARRENA**.- Onartzea Kondeaneko Aldapa, 11-n Babes Ofizialeko 11 etxebizitza” egiteko obren kontratuaren likidazioa 752.603,58 €-koa.

**HIRUGARRENA**.- Onarpen hauek baldintzatuta geldituko dira prezioen justifikazio teknikoa egin arte.

**LAUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Kondeaneko Aldapa UTE-ri eta Kontuhartzaitzari.

**4.- 32/2017 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **32/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **242.544,98** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- **32/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**Beh. Beh. IDAZKARIA**